

10 langile eta gehiagoko Euskal AEko enpresen % 30,1 berritzaileak izan ziren 2018an


Jarduera berritzaileen gastua, guztira, 2.828 milioi eurokoa izan zen

10 langile edo gehiagoko enpresa berritzaileen ehunekoa % 30,1era igo da 2018an Euskal AEn, Eustatek egindako datuen arabera. Aztertutako bi berrikuntza motak aztertuz gero, Produktuaren berrikuntza % 18,1ek egiten dute, eta Prozesuaren berrikuntza % 27,9k. Espainian, 10 langile edo gehiagoko enpresa berritzaileen ehunekoa % 20koa da, Euskal AEn baino ehuneko 10 puntu txikiagoa.

Enpresa guztiak kontuan hartuz gero, 2018an Euskal AEko enpresa berritzaileen ehunekoa % 17,3koa izan zen, % 8,5 Produktuaren berrikuntzarekin eta % 16,4 Prozesuaren berrikuntzarekin.

Euskal AEko enpresek jarduera berritzaileetan egindako gastua 2.828 milioi euro izan ziren 2018an. Jarduera horietan, barneko I+Gko gastua % 50,3 da, I+Gko Eskurapena (kanpoko I+G) % 16,1 eta Beste jarduera berritzaile batzuk (*) gainerako % 33,6a.

Jarduera berritzaileetako gastuaren banaketa jardueren arabera (%). 2018



Iturria: Eustat. Berrikuntzaren inkesta

Enpresa berritzaileen % 25,7k finantzaketa publikoa jasotzen dute

Enpresa berritzaileek erakunde publiko baten edo gehiagoren finantzaketa publikoagatik laguntzak jaso ditzakete. Hala, enpresa horien % 25,7k finantzaketa publikoa jaso zuten. Jatorria aztertuz gero, Eusko Jaurlaritzakoak nabarmentzen dira, enpresa berritzaile guztien % 17,6ra iristen baitira. Foru-aldundiek eta toki-administrazioek enpresa horien % 9,1 eta %

4,3 finantzatzen dituzte, hurrenez hurren. Estatuko Administrazioak Euskal AEko enpresa berritzaileen % 4,4ri laguntzen die; enpresen % 5,3k, berriz, Europar Batasunaren finantzaketa jasotzen dute Horizon 2020 programaren bidez, eta antzeko ehunekoak beste finantzaketa baten bidez.

10 langile edo gehiago dituztenen kasuan, % 48,1ek laguntza publikoak jasotzen dituzte, eta Eusko Jaurlaritza da, halaber, tamaina horretako berrikuntza-gastuak dituzten enpresen kopuru handiena finantzatzen duena, zehazki % 36,0. Foru-aldundiek eta toki-administrazioek % 18,9 eta % 7,9 finantzatzen dituzte, hurrenez hurren; Estatuko Administrazioaren finantzaketa, berriz, 10 langile eta gehiagoko enpresen % 15,4ra iristen da. Bestalde, % 10,7k Europar Batasunaren finantzaketa jasotzen du Horizon 2020 programaren bidez, eta % 8,9k beste finantzaketa-mota baten bidez.

Finantzazio publikoa jasotzen duten enpresa berritzaileak, finantzazioaren jatorriaren arabera (%). 2016-2018

Unitatea: enpresa portzentajea

	Guztira	10 langile edo gehiago
Finantzaketa publikoajasotzen dute hauetatik (*)	25,7	48,1
Eusko Jaurlaritza	17,6	36,0
Foru aldundiak	9,1	18,9
Tokiko administrazioak	4,3	7,9
Administrazio zentrala	4,4	15,4
EBren Horizonte 2020 programa	5,3	10,7
EBren beste finantzaketa bat	5,3	8,9

(*) Enpresek erakunde baten baino gehiagoren finantzaketa jaso dezakete

Iturria: Eustat. Berrikuntzaren inkesta

Enpresen erdiek baino gehixeagok, % 53,4k, uste dute badirela jarduera berritzaileak egitea zailtzen duten faktoreak

Enpresen % 53,4k uste du berrikuntza zailtzen duten faktore jakin batzuk daudela. Faktore horien artean honako hauek daude: "enpresaren barruan beste lehentasun batzuk daude" (% 38,5), "kostu handiegiak daude" (% 32,6), "merkatuan lehia handiegia" dago (% 27,3), "laguntza edo diru-laguntza publikoak lortzeko zailtasunak daude" (% 25,5), eta "enpresa barruan finantzaketarik ez dago" (% 24,9), besteak beste.

10 langile edo gehiago dituzten enpresetan, jarduera berritzaileak egitea zailtzen duten faktoreak daudela uste dutenek ehuneko hori % 61,7raino igo dute, aurreko oztopo berberak nabarmenduta.

Produktu berritzaileek negozio-zifraren % 36,4 sortzen dute beren enpresetan

Produktu-berrikuntza duten enpresetan, negozio-zifra osoaren % 36,4 produktu berritzaileetatik dator, eta aldatu gabeko edo pixka bat aldatutako produktuak gainerako % 63,6ak dira.

10 langile edo gehiagoko enpresetan, ehuneko horiek zertxobait aldatzen dira; kasu horretan, % 35,5ekoa da produktu berriek edo nabarmen hobetuek negozio-zifraren gainean duten batez besteko eragina.

Ohar metodologikoa

2018. urteari dagokion Berrikuntzaren Inkesta 2018ko Osloko Eskuliburuaren bertsio berriarekin egin da, eta horrek ekarri du seriea hautsi egin dela metodologia-aldaletaren ondorioz. Horregatik, 2018an argitaratutako datuak ezin dira alderatu aurreko urteetan argitaratutakoekin.

(*) Beste jarduera berritzaile batzuk, berritzeko asmoz egin daitezkeen enpresaren jarduerak jasotzen ditu, sei kategoria hauetan:

1. Ingeniaritza, diseinua eta beste sormen-jarduera batzuk.
2. Marketina eta marka sortzea.
3. Jabetza intelektualeko eskubideekin zerikusia duten jarduerak.
4. Langileen prestakuntzarekin zerikusia duten jarduerak.
5. Softwarea garatzea eta datu-baseen lanarekin lotutako jarduerak.
6. Ondasun ukigarriak eskuratzearekin edo alokatzearekin zerikusia duten jarduerak.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62